

IRAKASKUNTZA-GIDA

2015/16

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25954 - Hezkuntza Gainbegiratzea eta Etika Profesionala

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Hezkuntza gainbegiraketa prozesuek, Gizarte Langintzan graduatua diren pertsonen osoko garapena laguntzen dute, euren gaitasun kognitiboak, emozionalak eta estrategikoak hobetuz. Laguntza lanbideek, lanbide sozio-psiko-sanitariak deiturikoak ere, pertsonen zainketa eta arreta garatzen dute, eta laguntza aurrera eramaten duen profesionala dute baliabide nagusizat. Lan honetarako ezagutza tekniko profesionalak baino gehiago behar da. Profesional hauek, ezagutza teoriko-metodologikoak izateaz gain, nahita ez, euren gaitasun pertsonalak eta erlazionalak garatu beharko dituzte. Hau beharrezkotzat joko da, atenditzen duten pertsonen gaixotasuna eta bazterkeria gainditu ahal izateko.

Gainbegiraketa trebakuntza jarraitua da, hausnarketarako gunea sortuz, non praktikari buruz pentsatu daiteke, zailtasunak, ikastaldirako aukerak eta eremu profesionala integratzeko.

Ikasgai honek akonpainamendua, hausnarketa eta ikasketa dinamikoa du helburu, praktika eremuan sortzen diren ezagutzaren analisia eta hausnarketatik abiatuz.

AURRE BALDINTZAK:

* Hezkuntza gainbegiratzea eta etika profesionala ikasgaia Kanpoko praktikak: practicuma ikasgaiarekin batera ikasi behar da.

* Hezkuntza gainbegiratzea eta etika profesionala eta Kanpoko praktikak: practicuma ikasgaietan matrikulatzeko betebeharreko aurrebaldintzak hurrengoak dira:

-Jardute Profesionalerako Sarrera ikasgaia gainditua edukitzea. Honek eskatzen du aurretik Gizarte Errealitateen Behatokia eta Gizarte Baliabideen Behatokia ikasgaiak gaindituak izatea.

-A Moduluko 24 ETCS gaindituak izatea.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

PRAKTIKAK ETA GRADU AMAIERAKO LANAREN MODULUKO GAITASUNAK:

* Gizarte esku-hartzearen dilema etikoak ulertu eta identifikatu, eta baita ere, balioak, printzipio etikoak eta gizarte langintzako kode deontologikoak aplikatu.

* Konklusioak ahoz eta idatziz komunikatu, modu egituratuan eta dagokion audientziari egokiatuak.

IKASGAIAREN GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

1. Gizarte Langintzari buruz hausnartu, esku-hartze profesionala garatu den eta garatzen ari den testuinguru historikoak, sozialak eta politikoak kontuan hartuz.

2. Gizarte Langintzaren oinarriak definitu, diziplina eta lanbidea den heinean, haren objektua eta helburuak identifikatu.

3. Gizarte Langintzaren prozesu metodologikoa garatu, esku-hartze profesionalaren prozesua eta prozedura ulertuz.

4. Garatu beharreko funtzioak identifikatu, gizarte langileen esku-hartzea kritikoki baloratu estrategi profesionalak hobetzeko asmoarekin.

5. Gizarte Langintzaren espezifikotasuna eta diziplina anitzeko garrantzia esparru partekatuan ulertu.

6. Kritikak egiteko gaitasuna garatu, jardute profesionalean sortzen diren gatazka, dilema eta arazo etikoei aurre egiten.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

ANECAK ONARTURAKO EDUKIEN DESKRIBAPENA:

1. Ezagutza teorikoak eta ezagutza praktikoak: euren arteko harremana.
2. Ikerketa eta jardute profesionalaren sistematizazioa.
3. Gizarte Langintzaren metodologia, teknikak eta tresnak: aplikazioa.
4. Gizarte langilearen funtzioak eta rola. Bestelako profil profesionalekiko elementu komunak eta bereziztaileak.
5. Etika, balioak eta deontologia Gizarte Langintzan. Gizarte langileen kode deontologikoa. Dilema eta arazo etikoak.
6. Esku-hartze profesionalaren oinarriko estrategiak: entzute-aktiboa, enpatia, asertibitatea eta gatazken kudeaketa.

Honetaz gain, banakako zein taldekako gainbegiraketan jardute profesionalarekin zerikusia duten gaiak landuko dira, honako ardatzak kontutan izanik:

1. Ardatz epistemologikoa: Aztertuko diren sistema ezberdinen ezagutzen eraikuntza eta berreraikuntza.
2. Testuingurua-erakundearen Ardatza: Batetik gizarte politikari eta bestetik erakundearen sistemaren antolakuntzari dagokiona, bere egitura komunikatiboa, erlazionala, boterearena, etab.
3. Ardatz tekniko-metodologikoa: Gizarte esku-hartze prozesua aztertzen duena.
4. Ardatz intrapertsonala: Ikasle bakoitzaren estiloari buruz, bere gaitasunak, eta hobekuntza bideak.
5. Ardatz interpertsonala: Profesionalen edo lan taldearen arteko harremanetan zentratua.
6. Ardatz etiko-ideologikoa: Gizarte auziaren analisisian eta jarrera hartzean, sistema guztiak gurutzatzen dituen eta balioak kontuan hartzen dituen, Gizarte Langintzaren Kode Deontologikoa.

METODOLOGIA

MINTEGIAK, metodologia bezala, ikaslearen ebaluaketa ahalbideratzen du, eta auto ikastaldiaren garapena ezagutzeko ere laguntzen du.

Gainbegiraketa saioen egitura:

30 saio ikasturtean zehar. Taldeko saioak, 50+50 minutuko iraupena izango dute, egitura honekin:

1. Azaltzen diren derrigorrezko bibliografiaren kapituluak edo artikuluen banakako aurreko irakurketa, gainbegiratzen den egoera objektua hausnartzeko.
2. Saio bakoitzean ikasle batek bere praktika-guneko kasu praktiko bat azalduko du, bere hausnarketa eta berreraikuntzarako (banakako, taldeko, familiako zein komunitateko ekintzak). Horretarako Gainbegiratuko den egoeraren ahozko aurkezpeneko gidoia baliatuko da.
3. Taldeak behatu, aktiboki entzun eta galderak egiten ditu, egoeraren hizlariak argitu, zabaldu edo gehiago zehazteko. Lan guzti hau egoeraren erreferenteak eta analisi ildoak indartzeko asmoarekin. Hausnarketaz ari gara, elkarrizketa konstruktiboa eta kritikoa.
4. Bi erritu izango dira amaitzeko: Batetik, banaka irakurritako artikulua azalduko egoerarekin lotu beharko da. Eta bestetik, hizlariak zer eramaten duen azalduko du, lanean jarraitzeko eta bere ekintzak hobetzeko.

Trebakuntza ekintza presentzialak eta ez presentzialak beharrezkoak ikasgai honen gaitasunak garatzeko:

- Testuen irakurketa: hausnarketak eta eztabaidak klaseetan, emandako materialarekin lagunduta.
- Gainbegiraketa koadernoaren erregistroa, bai testuen hausnarketa eta baita gainbegiraketa saioen erregistroa ere.
- Banakako eta taldeko gainbegiraketak. Banakako gainbegiraketak tutoretza orduetan egingo dira.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak		60							
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.		90							

Legenda:

M: Maistrala

S: Mintecia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Banakako lanak % 50
- Ebaluazio-autoebaluazio protokoloa % 50

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasgai honek ETENGABEKO EBALUAZIO-SISTEMA dauka.

ETENGABEKO EBALUAZIO-SISTEMA

- Klaseetan parte hartu behar da.
- Ikaslearen aldetik aurkeztu beharreko lanak eta dokumentazioa:
 - *Gainbegiraketa koadernoak: irakasleak eskainitako ereduaren arabera.
 - *Gainbegiratu beharreko egoera: irakasleak eskainitako gidoiaren arabera.
 - *Ebaluatzeko-Autoebaluatzeko protokoloa: irailean, urtarrilean eta maiatzean bete beharrekoa.

Ikasle eta irakaslearen arteko %50eko ebaluazio-autoebaluazio sistema eramango da aurrera. Ikasgaia gainditzeko ikaslearen eta irakaslearen arteko batez besteko nota egiteko, bi alderdiak gaindituak egon behar dira.

AZKEN EBALUAKETA

- * Azken frogak, irakaskuntza gidan jasotako derrigorrezko materialetatik abiatuta (azken notaren %50a).
- * Gainbegiratu beharreko egoeraren aurkezpen idatzia, irakasleak eskainitako gidoiaren arabera (azken notaren %50a).

AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA ESKATZEKO PROZEDURA:

Ikasleren batek, arrazoi justifikatuak direla eta (Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 43.c, art. Jarraiki), irakasgaiaren azken ebaluazioaren sistema jarraitu ahal izateko, dagokion irakasgaiko irakasleari jakin arazi beharko dio, zentruak ezarritako “Azken ebaluazioaren sistema jarraitzeko eskaera prozesua” delako medio (ikus web gunea).

OHIKO DEIALDIARI UKO EGITEA:

Aurrekoa kontuan izanik, ohiko deialdiari uko egiteko, nahikoa izango da idatzizko lanaren lehen zatira ez aurkeztearekin (Gainbegiraketa koadernoak iraila-abendua).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

* Etengabeko ebaluazio-sistema jarraitu duen ikasleak eta idatzizko lana gainditu ez duenak, lan berri bat aurkeztu beharko du.

* Azken ebaluazio-sistema jarraitu duen ikasleak, gainditu ez duen proba gainditu beharko du.

Ezohiko deialdiari uko egiteko nahikoa izango da ez aurkeztearekin.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

IRAKASLEAK ESKAINITAKO MATERIALA:

- Isilekotasun hitzarmena
- Gainbegiraketa koadernoaren ereduak
- Gainbegiratu beharreko egoeraren idatzizko aurkezpeneko gidoiak
- Ebaluazio-Autoebaluazio protokoloa
- Oinarrizko bibliografia (derrigorrezkoa)

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

GAINBEGIRAKETARI SARRERA

Berasaluze, Ainhoa eta Ariño, Miren (2014). De la supervisión educativa a la profesional. Cuadernos de Trabajo Social, 27 (1), 105-115.

Puig, Carmina (2011). Trabajo Social y supervisión: un encuentro necesario para el desarrollo de las competencias profesionales. Documentos de Trabajo Social, 49, 47-73.

Hernández, Aristu, Jesús (2011). La supervisión y la tutoría de prácticas. Funciones, objetivos y posibilidades en la formación universitaria. In Trabajo Social en el espacio europeo: teoría y práctica (pp. 421-469). Madrid: Grupo 5.

De Vicente, Irene (2014). La supervisión educativa como punto de anclaje a las prácticas externas. In Pastor, Enrique (Ed.). Las prácticas curriculares en el Grado de Trabajo Social (61-79 or.). Madrid: Universitas.

ARDATZ EPISTEMOLOGIKOA

Ituarte, Amaia (2012). Una reflexión sobre los modelos de intervención de los trabajadores sociales desde la experiencia de la supervisión. In Sobremonte, Emma (Ed.). Epistemología, teoría y modelos de intervención en Trabajo Social (191-204 or.). Bilbo: Deusto Digital.

Viscarret, Juan Jesús (2009). Modelos de intervención en Trabajo Social. In Fernández, Tomás (Coord.). Fundamentos del Trabajo Social (293-344 or.). Madrid: Alianza.

TESTUINGURUA-ERAKUNDEAREN ARDATZA

Howe, David (1999). Los informes del usuario. In Dando sentido a la práctica. Una introducción a la teoría del Trabajo Social (29-35 or.). Granada: Maristán.

Pastor, Enrique eta Martínez, Blas José (2014). Análisis de contextos, instituciones y organizaciones en la práctica profesional. In Pastor, Enrique (Ed.). Las prácticas curriculares en el Grado de Trabajo Social (83-103 or.). Madrid: Universitas.

De la Red, Natividad eta Barranco, Carmen (2014). Trabajo Social y participación en las políticas sociales. AZARBE Revista internacional de Trabajo Social, 3, 39-45.

ARDATZ TEKNIKO-METODOLOGIKOA

Watzlawick, Paul (1981). Marco de referencia. In Teoría de la comunicación humana (21-48 or.). Barcelona: Herder.

Madrid, Jesús (2005). La destreza de escuchar. In Los procesos de la relación de ayuda (375-413 or.). Bilbo: Desclée De Brouwer.

ARDATZ INTRAPERSONALA

Sicora, Alessandro (2012). Práctica reflexiva y profesionales de ayuda. Alternativa, 19, 45-58.

Arija, Belén (1999). Apuntes para una reflexión teórico-práctica de la relación de ayuda. Cuadernos de Trabajo Social, 12, 141-158.

ARDATZ INTERPERSONALA

Ander-Egg, Ezequiel eta Follari, Roberto (1988). El problema de la interdisciplinariedad en el trabajo social. In Trabajo social e interdisciplinariedad (41-51 or.). Buenos Aires: Humanitas.

Dalmaso, Eduardo (2005). Mi equipo y yo. La Trama, 17, or.: . 2015eko uztailaren 13an berreskuratuta in http://www.revistalatrama.com.ar/contenidos/larevista_tapa_anterior.php?id=17

ARDATZ ETIKO-IDEOLOGIKOA

Salcedo, Damián (2015). El buen profesional. Cuadernos de Trabajo Social, 28 (1), 17-24.

Ballestero, Alberto (2009). Dilemas éticos en Trabajo Social: el modelo de la ley social. Portularia, IX (2), 123-131.

Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra (2012). Gizarte Langintzako Kode Deontologikoa. Madril: Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra.

Gehiago sakontzeko bibliografia

BERMEJO, Francisco J. (2002): La finalidad del trabajo social, Ética del Trabajo Social. Desclee de Brouwer. Bilbo. 55-69.

CARBALLEDA, Alfredo Juan Manuel (2007): Escuchar las prácticas. La supervisión como proceso de análisis de la intervención en lo social. Espacio. Buenos Aires.

DE VICENTE, Irene (2009): El lugar de la supervisión educativa en la formación de grado en Trabajo Social. [Doctoral tesis: www.tdx.cat]

GIMÉNEZ, Víctor V., LILLO, Asunción eta LORENZO, Josefa (2003): El proceso de supervisión de campo en el punto de mira: una investigación a tres en Trabajo Social. Alacanteko Unibertsitatea. Alacant.

SÁNCHEZ, Ricardo (2010): Supervisión en tiempos de crisis, una oportunidad para los profesionales de la relación de ayuda, Zerbitzuan, 47, 135-145.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK